

Odon Elorza

# «Amnistia eskatzeak bake prozesua kaltetzen du»

Donostia, 1955. Donostiako alkate hogei urtez izana. PSE-EEko kidea. Espainiako Kongresuan diputatu berria Gipuzkoatik: “Ez dut ‘klase politiko’ barruan nire burua kokatzen. Espainiako Gortek diputatuei ematen dieten pentsio-osagarri pribatuari uko egin diot” esan digu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

“NICOLAS REDONDO TERREROS idazkaria zen garaian PSE-EEen sekulako batailak izan genituen, alderdiak euskal errealitate nazionala bere egin zezan. Egun, barne joeren arteko bataila hori gaindituta dago hein batean. Ni, noski, euskal sentsibilitate handia dutenen aldean nago. Sozialista naiz, sentimendu autonomista sendo batez herri honi lotua” esan digu Espainiako Kongresuko diputatu berriak.

**Zer iritzi duzu PSEko presidente Jesus Egigurenek azken urteotan hartu duen jarrera politikoaz?**

Egiguren gure alderdiaren intelektuala da, herri honek dituen arazo-  
ei buruzko ideia oso argiak ditu, arazo-  
en soluzioak ikusten ditu. ETaren amaiera lortzeko apustu serioena PSEn berak egin du. Loiolako elkarrizketen saioan bere parte-hartze zuzenak izugarri markatu zuen, bakea lortzeko lanak antsia moduko bat sorrarazi zion,

izan ere, saiakera hark ez baitzuen emaitzarik ekarri. Iaz, berriz, Egigurenek Otegiaren eskutik –ETAren erabakia barne– heldu zen saioaren berri eman zien PSOEko zein PSEko zuzendaritzetzi, baina ez zioten aintzat hartu, edo ez behar bezain. Horrek, berriz ere, molestatu du eta deseroso utzi. Hau da, alderdi sozialistak ez du jakin modu egokiagoz jokatzeko bizi ditugun gertakari historikoen aurrean.



## “Finantza sistemak belauniko jarri ditu estatuak”

### Zergatik ezkerria ez da gauza eskuinaren menpekotasunez harago joan, eta berezko politika egiteko?

Hau da, zergatik galdu du PSOEek ezkerreko izaera Gobernuan izan denean? Zergatik ez zuen jakin aurreikusten AEBetarik etorritako krisi globala? Europar Batasuna (EB) prestatu gabe harrapatu zuena. Bada, Europar gaudelako eta, besteak beste, ezkerreko politikak ezartzeko ahalmenik ez duelako, ez ongi-izate estatuari eusteko ezta Greziarik eta gainerakoek zor publikoari ezin eutsiz behera etorri direnean laguntzeko ere. Krisia heldu zen, baina Europako Bankuak neurriak berandu hartu zituen. Halere, PSOEren Gobernuak ez zuen jakin garaiz jarduten, ez Europako beste alderdi sozialistekin koordinatzen. Europako politikak Merkel eta Sarkozyk ezarritakoak dira. Espainia G20an dago, baina ez dio onurarik ekartzen gure ekonomiari. Egoera aldatzeko ezkerrearen baloreak eta borrokarako grina batu behar ditugu berriz ere.

### Espainiako demokraziak bipartidismoan oinarrituta segitu behar al du? Ez dago beste modurik?

Alderdi sozialistak Espainian gobernatu nahi badu bipartidismoaren alde egin behar du, baina bipartidismo demokratikoago bat landuz. Demokrazian sakondu behar du, erreforma elektoralak proposatuz: M15 mugimenduak eskatu zituenak. Bipartidismo berriak ezker anitza behar du, ezkerreko indarren kolaborazio hobea, bereziki IUekin. Adibidez, ez dadin Extremaduran gertatua errepikatu, PSOEek PPko Gobernuak “onartu” baitu. Ez dadin hori Andaluzian gertatu ere. Hori horrela, eta Europar gaudela ahaztu gabe. Krisi ekonomikoaren soluzioa emango bada

Europa osoan emango da, Europako alderdi sozialisten arteko kolaborazioaren bitartez, bestela ez da krisia gaindituko. Edo ez dugu eraiki genuen estatuaren ongi-izatearen eredia berreskuratuko, horiek gainbehera doaz. Herritarren parte handienak funtsezko zerbitzu publikoak galtzen baditu, pribatutasuna gailenduko da Europar.

### Zein dira bide horretatik ateratzeko urratsak?

Sistema ekonomikoa eraldatzea: merkatu espekulatibo finantzarioak eta paradisu fiskalak kontrolatu behar dira, herrialdeen arteko fiskalitatea homogenizatzen eta koordinatzen. Porrotera garamatzen sistema kapitalista eraldatzeko modu bakarra da. Aldaketak kimera ematen du, baina ezin diogu uko egin. Sistema finantzarioak estatuak belauniko jarri ditu. Hasteko, lehen neurriak Europako Parlamentuak hartu behar ditu. Neurri konplexuak, baina ezkerrearen bidean baino garatuko ez direnak.

### Herritarrak jabetzen dira horretaz?

Nik EBko Gobernuak herritarrek bozketa zuzenaren bidez aukeratzea nahi nuke. EBko Gobernuaren instantziak demokratizatu behar dira, nahas-mahas handia dago han eta herritarren ezagutzatik urrun daude. Bruselako botere organoak demokratizatu behar dira eta horien segimendua egin, baita hedabideetatik ere. Talde bakoitzak zer bozkatzeko duen jakin behar dugu. Orain arte bigarren mailako parlamentutzat jo izan da, baina orain herritarrak jabetzen ari dira han oso gauza inportanteak ebazten direla. Euskadin autonomia eta fiskalitatea ona ditugu, baina kontuz, EBko Gobernuak zalantzen jartzen baditu...

Presidente izanez, bere jarrerak eragin gehiago izan beharko lukete alderdian, zure ustez?

Egigurenek ez du boterea erabiltzen alderdian: gogoeta, debata eta jarrerak batzen dituen pertsona da. Nik ontzat jotzen dut bere funtzioa. Baina, egiari zor, Egigurenek egin zituen zenbait adierazpen desegokiak izan ziren. Gero zuzendu zituen, baina adierazpenek iritzi publiko eta PSEko sektore batzuen aurrean egoera zailean utzi dute.

### Eusko Jaurilaritza hizpide, Lopez lehendakariaren ibilbidea amaitu al da?

Ez. Komeni da gogoratzea PSEk zergatik sinatu zuen ituna PPrekin eta da: Euskal Legebiltzarreko inbestidura saioa aurrera ateratzeko eta politikaren egonkortasun mesedean. PSEk deabruaren aritmetika egin behar izan zuen. Artean, Ibarretxe lehendakariaren subiranotasun bidea zabalik eta indarrean zegoen. Inork

ez zeukan —ezta EAJk ere— lehendakaria izendatzeko indarrik. PP eta PSEren arteko ituna arraroa da, baina aldaketa beharrezkoa izan zen.

### Denbora pasa da eta egoera aldatu. Zer egin behar du PSEk orain?

Lehenik, ez dezagun Ibarretxeren estrategia jokoz kanpo utzi izanaren lorpena ahaztu, ezta ETA jarduera terrorista uztera behartu dugula. Horiek horrela, PP eta PSEren arteko ekintza politikorako batasunaren behararen justifikazioa eta edukia gutxitzen ari dela esango nuke. Antonio Basagoiti eta Patxi Lopezen posizioak aldentzen ari dira, arrazoiak begi-bistakoak dira: Espainiako politika orokorra eta bake prozesua bideratzeko modu desberdinak ditugu. PSE neurri batean hipotekatu duen egoera aldatzen ari da eta pozten naiz. Ni eta beste batzuk oso deseroso sentitu gara PPren itunarekin.

### Hauteskunde autonomikoak udazkenean aurreratzea ongi legoke, beraz?

Aurreratzea edo ez, ekonomiaren egoerak baldintzatzen du. Espero dezagun hobetzea, eta desentzugarri dagokionez, Estatuan daukagun diferentzialari eustea. Espero dezagun halaber, borroka handiak ez izatea Euskal Legebiltzarrean Jaurilaritzaren ahultasuna ez nabarmentzeko. Legebiltzarrean orain arteko politika transbertsala egiten segitzen bada, lehendakariari akordioak lortzen uzten badiote, Jaurilaritzak lanean segi dezake datorren urteko otsailera arte duintasunez.

### Nola ikusten duzu bake prozesua presoen aldeko Bilboko manifestazioaren ostean?

Bada, ez dut egoki ikusten manifestazioaren inguruan izandako amnistiaren aldarrikapena. Eskararak ez dauka oinarri legalik. Hori badakite Otegi jaunak nahiz



**“Jaurlaritzak lanean segi dezake datorren urteko otsailera arte duintasunez”.**

ETAk. Horretaz gain, eskaera inmorala da. Oraindik ere hilketak epaitzen ari dira, hildakoak beroberoan daudenean eskaerak ez du prozesua aurrera eramaten laguntzen. Amnistia eskatzeak kaltea ekartzen du, anabasa eta tentsioa sortzen ditu, Espainian, eta bereziki PPren eta honen inguruko biktimen elkarleen inguruan.

**Zer egin behar da orduan, aurrera-pausoak emateko?**

Presoak hurbiltzea, legezkoa da, beharrezkoa eta egokia. Lehenbailehen eman beharreko urratsa da, bestelako kontuen zain egon gabe. Hori da politika egokiena. Hori da ETARI –bere azken agiriaren ondoren– eman behar zaion erantzuna. ETA desegin dadin –eta prozesua ez zapuzteko– neurri-neurriko pausoa da hori. Gainera, azken batean preso hurbilketa izango da, PP kontzientea da horretaz. Atzeratzea Amaiur eta ETarentzat garaipen modukoa da. Kalekoen garaipena eta ez garaian garaiko politikaren erabaki logikoa. Ezker abertzaleari ez zaio biktimismoaren aitzakian indartzen utzi behar.

**EPPkren eskaeraz zer deritzozu?**

ETAko presoek kolektibo moduan jarduteari utzi egin beharko liokete, ETAko presoak dira, baina ez lukete ETAREN kontsignen arabera jardun behar. Nork bere erabakiak hartu behar ditu, eta espetxe politikak eskaintzen dituen onurak baliatu. Baldintza horiek betez gero, hobe-kuntzak eta dagozkien askatasuna jaso litzateke.

**Espainiako auzitegiek ere jarrera egokiagoa hartzeak lagunduko luke.**

Noski, gai honetan zuhurrak izan behar dugu. Konstituzio Auzitegia *Parot doktrinaxi* buruz hartuko duen erabakia garrantzizkoa da. Erabaki hori funtsezkoa da, eta PPren eta PSOEren nahi politikotik at egon behar du, justiziaren ebazpen horiek jurisprudentzia markatu izan dute eta markatuko dute. Eta lehenbailehen egitea hobe, baina egin ditzagun gauzak ikuspuntu legal eta demokratiko batetik, bake prozesuan aurrera egiteko. Ez ditzala inork elkarbizitza hondoratu dezaketen tentsioak sortu.

**“Dena ETA da” baiezipenak ekarri duen egoera gainditzea ere hobe.**

Noski, nik Auzitegi Gorenak Otegi jauna eta auzian daudenen askatasunaren alde ebaztea nahi dut.

**Klase politikoarentzat komenigarria delako, oposizioan daudenezat...**

Ez. Neronek daukadan iritzia da, nire konbikzio politiko demokratikoetan funtsatua. Nik ez ditut kalkulu interesatuak egiten. Bake prozesuari buruzko nire jarrerak ezagunak dira. Zentzu horretan, Sortu legalizatzeko Konstituzio Auzitegiak hartu behar duen erabakia funtsezkoa da normalizazio bidean. Hori ere lehenbailehen ebaztea nahi dut, ez hamaika eskaera egin ondoren, Bilduren edo Amaiurren biktimismoa elikatzen den bitartean.

**“Frentismoaren aurka nago, frentismo espainola nahiz abertzalea denean”**

**Auzitegi Gorenaren nahiz Konstituzionalaren erabakiak aldatuko dira PP boterean dagoenez gero.**

Gorenak eta Konstituzionalak ebazpen horiek ematea espero dut, eta beren konfigurazioan inolako aldaketarik izan gabe. Areago, PPK urteetan uko egin dio aldaketa horiek egiteari, eta espero dezagun, urtetan azterketa serio egin duten epaileek ebaztea, ez daitezen berriz ere hutsetik hasi lanean. Izan ere, Rajoy inbestidura saioan preso ikusi nuen nolabait, alderdiaren sektore inobilistak lotua, bake prozesua onartzen ez duten kolektiboek presionatua. Hauek eta PPren kaberna mediatikoa hipoteka izugarriak dira Rajoyrentzat. Antza, Rajoyk ez du inizatiba hartuko bake eta normalizazioan aurrera egiteko epe laburrean, areago, ez du aurrera egingo ETA guztiz desegin arte.

**Zein dira ETAREN –behin betiko jarduera armatua utzi duenetik desegitera bitartean– betebeharrekoak?**

ETAk barkamena eskatu behar die biktimei. Egindako minen eta kalteen ezagutza onartu. Armak uztearen keinu sinbolikoa egin behar du. Horiek jarraibide batzuk dira ETAREN aldetik, bake prozesua bideratu ahal izateko. Terrorismoa utzi du, baina hori hastapena da. Egonkortasuna eta elkarbizitza lortzeko pauso horiek eman behar ditu, gerora, herritarren konkordia zibikoa eman dadin. Gorrotoa, beldurra eta agrabioak gaindi ditza-gun, prozesuak gauza asko behar du: preso hurbilketa eta indar politikoen arteko normalizazioa, betiere, estrategia frentista saihestuz. Nicolas Redondo eta Mayor Oreja besarkatu zireneko garai haietatik gaur arte funtsezko pausoak eman ditugu. Ni frentismoaren aurka nago, espainola nahiz abertzalea denean. Horiek saihestu ondoren heziketan eta komunikazioan lan handia egin behar dugu. Errelato konpartitua osatu behar dugu. Hori guztia lor dezakegu, baina horretarako jarrera inobilistak gainditu behar dira. Nire beldurra PP inobilista batekin politika egin behar izatea da. ■

